

Artearen urrats gazteak

Arteak ez du adinik. Ala bai? **O** Oraingoan Eibarren aurkitu ditugu hamar artista gazte, *...eta kitto* euskara elkarteak antolatuta artista gazteei eskainitako erakusketa berezi batean. **O** 18 eta 23 urte bitarte dute guztiek, eta arteari buruzko ikuspegi anitz entzun ditugu haien ahotik. **O** Erakusketa ikusi eta arteari eta artista gazteei buruzko eztabaida txiki batean aritu gara haiekin, sorkuntzaren txokorik ezkutuenak eta artista gazteen kezka eta iritzi askotarikoak azaleratu nahian. **O** Lanak besteko estilo eta iritziak dituzte. Kezkak ere beste hainbeste.

ane sarasketa

«Zer da artea?», galdetu diegu hamar artista gazteoi. «Zer ez da?», erantzun du Maite Lanasek. «Artea edozer da. Egunerokotasunean ere aurki dezakezu artea», dio Iratxe Unanuek gero. Bi gazte horien lanekin batera, Oihana Alberdi, Lorea Arretxe, Leire Alberdi, Gorka Aizpurua, Jon Eguren, Ainara Garcia, Nerea

Ibarbia eta Susana Lopezen lanek osatu dute aipatu erakusketa.

Haien lanak ikusiz gero parekotasunik ezin aurki daiteke, bakoitzak bere ildo propioari eusten baitio sormen lanak egiteko orduan. Batzuk Arte Ederrak ikasten ari dira; beste batzuk, ordea, ez. Artista sentitzen direnak badira haien artean. Hala sentitzen ez direnak ere bai. Artearen beraren zabalatasunean sartzen diren beste iritzi entzun daitezke hamar artista gazte

horien ahotan. Horietako batzuk jaso ditugu ondoren.

Leire Alberdik ez du artistatzat ikusten bere burua, oraingo. «Nik ez dut inoiz jakin ongi definitzen artista izatearen edo ez izatearen kontua. Niretzat Arte Ederretako ikasketak ez dira beste edozein karrera modukoak; esaterako, kazetaritza ikasi eta kazetari izaten irarten zarela. Orain arte munduan zer da-

Oihana Alberdi


■ **Ikasketak:** Arte Ederrak.

■ **Alorrak:** Eskultura eta ikus-entzunezkoak.

■ **Joerak:** Bi alorrek nahasiz egiten ditu bere lanak. «Arlo bakoitzetik zerbaitek berria ikasten da. Gero bakoitzak bere bidea bilatu behar du, zure artearen oinarriak edukitzeko», dio.

■ **Gustuko artistak:** Hainbat estilotako artistak gustatzen zaizkio: Keith Haring, Jenny Holzer...

▼ Intimoa



▼ Argazkiak: Julio Calleja



▼ Azpi hiria

Jon Eguren

goen ikasten dihardut, eta hortik aurrera zer egin? Ikusiko dut», dio Leire Alberdik.

Bestela uste du, ordea, Ainara Garcia: «Nik uste dut artistaren lanbidea beste edozein lanbide bezalako dela. Gidari baten lanbidea bezalako edo beste edozein lanbide bezalako. Zer gertatzen da? Artea beti gutxiengo bati zuzendua egon dela, alde ekonomikotik begiratuta hala komeni izan delako. Baina gaur egun ez da hala. Aldatzen ari da kontua».

Artea leku guztietan dagoela diote, artea edozein lekutan aurki daitekeela; dena den, konbentzioek oraingo indarra badutela onartu dute, nahiz eta konbentzio horien kontra gogor egin. «Lan artistiko bat izango da egin duenaren helburua lan artistiko hori egitea bada», dio Leirek. «Beno, baina lagun askorentzat pertsona multzo bat behar da, zure lana artea dela sinesten duen lagun multzo bat, gero lan hori arte bilakatzeko. Konbentzio kontua da», esan du Oihana Alberdik.

Eztabaidak aurrera egin ahala, zera galdetu diegu: «Zuek egindakoak arte-lanak al dira?». «Bai», erantzun dute. Baina artistak direla esan diegunean, aldiz, eztabaida piztu da osera. Batzuek baietz diote; beste batzuek, ordea, ezetz: «Nik oraingo sorkuntza lanak egiten ditut, ez zait gustatzen ar-

telan bat denik esatea. Akaso aurreritzi kontua izango da, baina hala da», dio Leirek, Ainararen iritzia-
ren kontra. «Akaso gure lan hauek artista izateko bidean egin lanak dira. Harri txikiak, gero harri handi bilakatzeko», dio Oihanak, baikor.

Joerak aldatuz

Gizartearen antzera artea ere aldatuz doala diote. Aldaketa jarraitua dela deritzote, baina. «Egun ezin dugu apurketa sendo horietaz hitz egin. Ez da abangoardian bezala gertatzen, garapen jarraitu bat dagoela uste dut», dio Oihanak. Egungo artistak artistaren irudi gorenarekin hausten saiatzen direla uste dute. Ainararen hitzetan, «beste egitura batzuk erabiltzen ditu orain artistak; artea egunerokotasun batera eramateko egiturak, eta sortzeko interakzio bat artistaren eta publikoaren artean. Orain arte artista oso goian egon da alde batetik, eta publikoa bestetik, azpitik. Horren aurkako jarrera bat dago. Artista eta publikoa elkar-tzea lortu nahi du egungo artistak».



▲ Venezia

Lo...

■ Ikas egitea Eibar eskola duela hona

■ Joer artist lanan ildor...

■ Eto Eder...

■ Eto Eder...

■ Eto Eder...

■ Eto Eder...

■ Eto Eder...

■ Eto Eder...

■ Eto Eder...